



HAUR ETA GAZTE LITERATURA ESKOLAN III

IKASTARO OSAGARRIAREN AURKEZPENA ETA PROGRAMA

- **ANTOLATZAILEAK**

Galtzagorri Elkarte eta UPV/EHU-ko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundua.

- **ARDURADUN AKADEMIKOAK**

Miriam Luki (Galtzagorri Elkarte) eta Ibon Egaña (UPV/EHU)

- **AURKEZPENA**

Irakurketaren inguruan gaurko gizartean eta, bereziki, hezkuntza-esparruan dagoen kezka bati erantzuteko asmoz sortu da ikastaro hau. Zehazki, irakurketa literarioak eskoletan duen lekua hobetzeko, eta irakurketan bitartekari diren irakasle edo irakaslegaien formazio literarioa aberasteko eskaintza egin nahi dugu ikastaro honen bidez.

Izan ere, haur eta gazteak irakurketa literarioan trebatuko badira, ezinbestekoa da irakasleen eta irakasle izango direnen gaitasun literarioan sakontzea. Era berean, funtsezkoa da hezkuntzako profesionalei haur eta gazte literaturaren inguruko ezagutza eta baliabideak eskura jartzea, ondoren beren eguneroko lanean erabil ditzaten.

UPV/EHU-ko “Etengabeko prestakuntzako ikastaroen” eskaintzaren barruan eskainiko da ikastaroa, 2022ko urtarrilean hasita.

- **IKASTAROAREN HARTZAILEAK**

Bi hartzaile-mota ditu ikastaro honek:

1. Irakaskuntzan diharduten maisu-maistrak eta hezkuntzaren munduko profesionalak.



2. Unibertsitateko ikasleak, bereziki hezkuntza ikasketak egiten ari diren etorkizuneko maisu-maistrak, hots, Lehen Hezkuntza zein Haur Hezkuntza Graduak egiten ari diren ikasleak. Era berean, hezkuntzarekin zerikusia duten beste titulazioetako ikasleak (Pedagogia, Gizarte Hezkuntza...) eta giza zientzietako ikasleak ere (Filologiak, Arte Ederrak) beren formazioa aberastuko dute ikastaro honekin.

3. Gaian interesa duten bestelako pertsonak.

- **HOMOLOGAZIOA**

Ikastaroak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren homologazioa onartuta du.

- **EBALUAZIOA**

Ikastaroaren aprobetxamendu ziurtagiria eskuratzeko, bi baldintza bete beharko dituzte ikasleak:

- Saioen % 80etara etortzea.
- On-line egin beharreko jarduerak burutzea.

- **IRAKASKUNTZA-MODALITATEA: ERDI PRESENTZIALA**

Ikastaro honek 65 orduko iraupena izango du, 5 ikasgaitan banatuta. 5 ikasgaitik 4k 13 orduko iraupena izango dute eta horietatik 4 ez-presentzialak izango dira; hain justu, ikasgai bakoitzeko eskatuko den lanari dagozkionak eta online bete beharrekoak.

Saio presentzialak 3 ordukoak izango dira, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara eta asteazken arratsaldez emango dira, Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean.

- **IZEN-EMATEA ETA MATRIKULA**

Ikastaroan izena emateko epea zabalik egongo da **2021eko azaroaren 8tik abenduaren 3ra**. Horretarako, izen-emate [FORMULARIOA](#) bete beharko da datu orokorrekin, eta aurkezpen-gutun laburrekin (gehienez 10 lerrokoa).



Ikastaroan onartuak diren ikasleei e-mailez jakinaraziko zaie eta matrikula egingo dute **2020 abenduaren 10etik 16ra**.

- Ikasleek eta langabetuek **50 euroko** matrikula ordainduko dute.
- UPV/EHU-koak ez diren ikasleek **150 euroko** matrikula ordainduko dute.
- Galtzagorri Elkarteko bazkideek **100 euroko** matrikula ordainduko dute.



- IKASKETA-PLANA ETA KRONOGRAMA

1. HGL: sarrera. Definizioa, historia eta egungo egoera.			
Ikasgai honi dagokion lana bakarra izango da eta Juan Karlos Alonsok gidatuko du.			
Haur Literaturaren definizioa eta historia laburra. Euskal haur literaturaren historia. HGL generoen sailkapen orokorra: poesia, ahozko literatura, ipuinak, narrazioa, albuma, komikia ...	Urtarrilak 12	Xabier Etxaniz Erle	
Euskal Haur eta Gazte literaturaren sistema gaur egun: idazle/ilustratzaile aipagarriak, argitaletxeak, elkarteak, sariak, komunikabideak, dokumentazio-guneak... Arreta berezia jarriko dio itzulpengintzari	Urtarrilak 18 (asteartea, salbuespena da)	Garazi Arrula	
Haur Literaturaren garrantzia haur eta gazteen garapen psikologikoan	Urtarrilak 26	Juan Karlos Alonso	
2. Irakurketa literarioaren testuinguruak: gizarte elebidunean irakurtzea eta irakurketaren lekua ikastetxean			
Ikasgai honi dagokion lana bakarra izango da eta Ibon Egañak gidatuko du.			
Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa eta hezkuntza-egoera anitzak. Elebitasuna, diglosia eta irakurketa: egoera soziolinguistikoa eragina haur eta gazteen irakurketan	Otsailak 2	Paula Kasares	
Irakurketa literarioaren lekua ikastetxean eta Irakurketa Planetan. Irakurketa-esparruak eta beraien arteko loturak: gizartea, etxea, eskola, udal eta eskola liburutegiak	Otsailak 9	Ibon Egaña	
Irakurzaletasunaren sustapena eta bitartekarien rola. Liburuak aukeratzeko gomendio irizpideak Irakurzaletasunaren sustapena: dinamika eta jarduera egokiak (kanpainak, ikus-entzunezkoak, orientabideak, literatura	Otsailak 16	Mikel Ayerbe	



	digitala...)		
3. HGL-ko generoak ikasgelan (I): ahozko generoak, poesia eta antzerkia			
Ikasgai honi dagokion lana bakarra izango da eta Yolanda Arrietak gidatuko du			
	Ahozko tradizioko testu poetikoak Tradizio idatziko haur poesia	Otsailak 23	Yolanda Arrieta
	Ahozko tradizioko ipuinak. Ipuin-kontaktak	Martxoak 2	Juan Kruz Igerabide
	Dramatizazioa eta antzerkia	Martxoak 9	Intza Alkain
4. HGL-ko generoak ikasgelan (II): genero narratiboak			
Ikasgai honi dagokion lana bakarra izango da eta Mariasun Landak gidatuko du			
	Liburuen hautaketa eta baloraziorako irizpideak Liburuak ikasgelan irakurtzeko estrategiak eta baliabideak.	Martxoak 16	Mireia Delgado
	Irakurketa eta idazketa sortzailea lotzeko jarduerak.	Martxoak 23	Mariasun Landa
5. HGL-ko generoak ikasgelan (III) genero ikonografikoak. Albuma, ilustrazioa eta komikia			
Ikasgai honi dagokion lana bakarra izango da eta Karla Fernández de Gamboak gidatuko du			
	Ilustrazioa HGL-n. Album ilustratua: definizio, elementu eta ezaugarriak. Euskal Herriaren tradizioa.	Martxoak 30	Karla Fernández de Gamboa
	Album ilustratuetan oinarritutako proiektuak	Apirilak 6	Amaia Hennebutte
	Komikia: ilustrazioa eta komunikazio gaitasuna. Euskal komikiaren historia	Apirilak 27	Amaia Serrano
	Album ilustratuetatik abiatuta proiektuak diseinatzeko trebetasunak eskuratzea	Maiatzak 4	Maite Gurrutxaga